



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 17a

67. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, dirulaguntzei buruzko azaroaren 5eko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien presztazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan eta aurrekontu handiagoa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdirako. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak artikulatze aldera Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak beren borondatez atxiki ahal izateko Estatuko klase pasiboen araubideari. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ez diezaien eraso egin emakumeen oinarritzko eskubideei eta ez dezan era murriztailean alda egungo Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezko aldagetak egin ditzan indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuan eta exijiri diezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, “Red Eléctrica Española” enpresa premiatzen da justifika dezan Orkoiaren eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzea. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitie “Huntsman” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie “Ganasa”ko langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie uholdeek kaltetutako pertsona guztiei eta administrazio publikoak premiatzen baititu presako neurriak har ditzaten. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitie uholdeek kaltetutako pertsona, familia eta entitateei. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, jakitekoa zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2012ko abenduaren 31koa (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuaren jardueran dirulaguntzek hartu duten garrantziaren isla da, besteak beste, dirulaguntzak kudeatzeko eta garatzeko araudi berariazkoa egotea; azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea hain zuzen. Arau horren zioen azalpenak azpimarratzen du gastu publikoaren zati handi bat dirulaguntzetan egiten dela.

Kontuen Ganberak bildutako datuetan agertzen denez, 2010ean gastatu ziren 4.300 milioi euroetatik, % 50 inguru transferentzia eta dirula-

guntzei dagokie, aurrekontuetako 947 kontusailetan sailkaturik.

Nafarroa aitzindaria izan da, autonomia erkidegoen artean, dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko arauak ezartzen, baina kontuan hartuta foru legeak indarra hartu zuenetik iragandako denbora, eta administrazioaren beraren desberdintasun nabarmenak, ekonomia, gizarte eta egitura arlokoak, baita juridikoak ere, komenigarria da gaurko arauak eguneratzea eta berrikustea, besterik ez bada ere.

Ildo honetatik, Kontuen Ganberak berak sartu du 2011ko kontu publikoei buruzko fiskalizazio xostenean honako gomendio hau:

“Gaurko koiuntura ekonomikoa dela eta, Gobernuaren dirulaguntza-politikak berrikustea, gizarteak dituen beharrei eta eskatzen dituen helburuei erantzuna ematen ote dieten egiaztatzeko”.

Foru Lege proposamen honen edukiak oinarritzko gaiak aurkezten ditu, dirulaguntza publikoen kudeaketa dinamiko, eraginkor eta gardenari dagozkionak, halako printzipio batzuk aplikatuz, alegia, alde aurreko planifikazioa, egutegia ezartzea, jarraipena eta geroko ebaluazioa, Parlamentuak eginiko kontrol egokia ahaztu gabe.

Adibidez, dirulaguntzetarako urteko egutegi bat ezartzea, eta haien deialdia epe zuhurretan egitea ekitaldi bakoitzean, zio garrantzitsutzat jotzen dira. Eta noiz edo noiz gertatu da urtero egiten diren dirulaguntzek atzerapen nabarmenak izan dituztela administrazio-izapidetzean.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean, datuak alde aurretik berrikusita, agertzen da 2012an Nafarroako Gobernuak dirulaguntzen deialdia honako era honetan banatu zuela: % 31 lehen hiruhilabetekoan, % 37 bigarreanean, %15 hirugarrenean eta % 16 laugarren hiruhilabetekoan.

Dirulaguntzetarako egutegi hau Europar Batzordearen araudian ere jasotzen da, eta bera aplikatzea onura garbia da administrazioarentzat,

baina aldi berean balizko onuradun diren entitate eta herritarrentzat ere bai, aurrekontuen gaineko jarduerak eta garatu beharreko jarduketak era egokiagoan planifikatzeko.

#### **Artikulu bakarra.**

Bat. Beste letra bat gehitzea 5. artikuluko lehen puntuari, honako testu honekin

“1.d) Aurrekontuen planifikazioa eta egonkortasuna”

Bi. 5. bis artikulua gehitu da, honako edukia duena:

“5 bis. Planifikazioa eta jarraipena.

1. Departamentuek eta erakunde autonomoek urtero ezarriko dute, otsailaren 28a baino lehen, dirulaguntzen arloko lan programa eta egutegi bat. Bertan deialdiak bilduko dira, urte anitzekoak barne, kasua denean. Egutegi horretan hainbat alderdi jasoko dira; besteak beste, departamentu edo erakunde eskuduna, deialdiaren xedea, aurrekontua, finantzaketa-iturria eta esleitzeko prozedura.

Dirulaguntzen deialdiak, ahal dela, ekitaldi bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen egin behar-

ko dira, salbu eta behar bezala justifikaturiko kasuetan.

2. Urteko plangintzaz gain, foru administrazioak dirulaguntzen plan estrategiko orokor bat ezarriko du, hiru urtetik behin, eta departamentuen eta jarduketara lerroen arabera xehakaturik. Plan horrek, onetsia izan aurretik, arlo ekonomikoan eskumena duen departamentuaren baimena lortu beharko du.

3. Urte bakoitzeko lehen lauhilabetekoan, departamentu eta erakunde autonomo bakoitzak aurreko ekitaldiko dirulaguntza-deialdien ebaluazio-txosten bat prestatuko du. Aipatu txostenean aztertuko da deialdi bakoitzean banaka proposatutako helburuak bete ote diren, eta, halaber, dirulaguntzen plan estrategikoarekiko egokitzapena eta gizarte-eragina. Era berean zehaztuko da erabilgarritasuna, eta jarraitu behar duen ala bertan beharra utzi behar den, kasu bakoitzean.

4. Aurreko idatz-zatian agertzen den txostena, behin onetsia izan eta ezarritako epean, Nafarroako Parlamentuan arlo ekonomikoan eskumena duen batzordeari igorriko zaio, administrazio osoaren agiri bakar gisa”.

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken hilabeteotan, Nafarroako Gobernuak bi foru agindu onetsi ditu, mendekotasun egoeran dauden pertsonengan eragina dutenak eta legegintzaldi honetan mendekotasunaren arretaren arloan eginiko murrizketa ugariatzen sakontzea dakartenak.

Urtarrilaren 18ko 62/2013 Foru Aginduak beste murrizketa bat aplikatzen die mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileek jasotzen dituzten diru kopuruei. Laguntza horiek % 15eraino murriztu dira, 2012an % 10 eta % 29 bitarte murriztu baziren ere.

Era berean, mendekotasun arineko egoeran dauden pertsonentzako laguntza ekonomikoak desagerrarazten dira 2012ko uztailaren 13tik goertziko sarrera izan duten eskaerarako, gai hori nabarmendu bazen ere egungo legediaren hobekuntza urrietako baten moduan.

Aipatzekoa da uztailaren 13aren ondoren aurkeztutako eskaerei dagozkien laguntzak era berean murriztuko direla, mendekotasun graduak ezabatu egin baitira, gobernu zentralak onetsitako 20/2012 Errege Lege-dekretuaren ondorioz.

Era berean, nabarmendu nahi dugu Zerbitzuari Lotutako Prestazioak arautzen dituen abenduaren 24ko 732/2012 Foru Aginduak, laguntzen zenbatekoa murrizteaz gain, ezabatu egiten dituela 2. mailako mendekotasun arina duten pertsonentzako zerbitzuari lotutako laguntzak.

Aipatu foru aginduak onetsi ostean, Nafarroako Gobernuaren 2013-2015 urteetarako Ekintza Plan berria ezagutu dugu, eta plan horrek, besteak beste, zenbait aldageta jasotzen ditu Mendekotasun Legearen aplikazioari dagokionez. Hitzez hitz, aipatu planak honakoak proposatzen ditu:

– Familiartekoen zaintzaileentzako diru-laguntzen zenbatekoak murriztea (ez mendekotasun handia dutenen kasuan; bakarrik mendekotasun larria edo arina dutenen kasuan).

– Bateragarritasun berriak ezartzea: eguneko egonaldiak egoitzetan, etxez etxeko laguntzarekin.

– Mendekotasun arina duten pertsonen zabaltea eguneko egoitza-egonaldiko zerbitzua.

Neurri horiek aztertzen baditugu, ondoko ondorioak atera daitezke:

Lehenbiziko neurriari dagokionez, nabarmendu daiteke mendekotasuna duten pertsonentzako diru-laguntzak, familiarteko batek hura zaintzeaga-

tikoak, legegintzaldi honetan izandako bi murrizketen ondoren % 25 inguru jaitsi direla. Horrenbestez, murrizketa berri hau hirugarrena litzateke Yolanda Barcina andrea Nafarroako Gobernuko lehendakari denetik.

Bigarren neurriari dagokionez, esan behar da eguneko egoitza-egonaldiaren eta etxez etxeko zerbitzuaren bateragarritasuna izan zela Elena Torres kontseilari ohiak aplikatu zuen lehenbiziko murrizketetako bat; horrenbestez, egoera hori lehenagoratu besterik ez dugu egiten.

Eta, hirugarrenari dagokionez, ikusi dugunez, Zerbitzuari Lotutako Prestazioak arautzen dituen abenduaren 24ko 732/2012 Foru Agindua onetsi zenean jada salatu genuen zerbait da; horrenbes-

tez, beraiek aplikaturiko murrizketa bat lehenagoratu besterik ez dute egin hemen ere.

Horiek horrela:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezar dezan eguneko egoitza-egonaldien prestazioaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arteko bateragarritasuna eta berriz ere berma dezan mendekotasun arina duten pertsonen eguneko egoitza-egonaldi zerbitzua izanen dutela, halako moduz non horrek ez baitu ekarriko mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten familiartekoentzako diru-laguntzen murrizketarik.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan eta aurrekontu handiagoa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdirako.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan eta aurrekontu handiagoa esleiri dezan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdirako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzeko eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait aldaketa egin ditzan talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen 2014ko deialdian.

Talde eta entitate artistikoentzako diru-laguntzen deialdiak aldaketa nabarmenak izan ditu azken bi urteotan. Horietatik, garrantzitsuena izan zen kontusail izendunen sistemaren ordezkari lehia askeko deialdi bat ezartzea talde eta entitate artistiko ia guztientzat.

Hala ere, bai 2012ko deialdiak bai 2013koak zenbait gabezia utzi dituzte agerian, eta, bi urteko esperientziaren ondoren, beharrezkoa da horiek zuzentzea.

Gabezia horiek zerikusia dute deialdirako jarritako diru kantitate urriarekin, laguntzaren xede diren talde eta entitateen aniztasunari erantzutea ahalbidetzen duten modalitate desberdinak oinarrietan ez izatearekin, eta balorazio-irizpideen artean proiektuaren kalitate orokorraren puntuazio nahikoa ez izatearekin.

Hori ikusirik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalegin gehigarri bat egin dezan 2014ko aurrekontuan eta aurrekontu handi-agoa eslei dezan aipaturiko deialdirako, erroturik

dauden eta jendearen onespena duten proiektuak laguntzarik gabe ez daitezzen gera, 2012an eta 2013an gertatu den moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialdiaren oinarriak alda ditzan, aurrekontu-hornidura duten modalitate desberdinak sortzeko, entitatearen eta/edo proiektuaren izaera kontuan harturik, eta proiektuaren kalitateari emandako puntu kopurua areagotzeko ahalegina egin dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 4an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak artikulatze aldera Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak beren borondatez atxiki ahal izateko Estatuko klase pasiboen araubideari.**

*BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak artikulatze aldera Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak beren borondatez atxiki ahal izateko Estatuko klase pasiboen araubideari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean Hezkuntza Departamentuari atxikitako irakasleen kidegoetako irakasleen artean badira talde desberdinak. Talde horiek, orain interesatzen zaizkigun ondorioetarako, sailka daitezke talde bakoitzari dagokion gizarte aurreikuspeneko araubidearen arabera, bai eta horren arabera bakoitzari aplikagarri zaion erretiro araubidearen arabera ere.

Talde handiena da Mufaceren gizarte aurreikuspen araubidea duten funtzionarioena. Funtzionario horien erretiro araubidea da Estatuko klase pasiboen araubidean aurreikusitakoa.

Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bategina onesten duen apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren 28. artikulua arabera (aurrerantzean, EKPLTB), funtzionario horiek nahitaez hartu behar dute erretiroa 65 urte betetzean (EPOEren 67. artikulua);

halaber, beren borondatez erretiroa har dezakete, hala eskatuz gero, 60 urte beteta badituzte eta Estatuari emandako 30 urteko zerbitzuak aitortuta badituzte.

Beste taldea da Gizarte Segurantzaren araubide orokorrera afiliaturiko langileena, zeinen egoera zenbait inguruabarren ondorio baita: laburbilduz, funtzionario horiek ez dira irakasleen kidegoetakoak hasieratik; aldiz, kidego horietan sartu dira prozedura berezien bidez eta irakaskuntzako funtzionario izaera hartu eta gerora (Nafarroako Foru Diputazioko irakasleak, Iruña, Uhartea, Atarrabia eta Burlatako udaletakoak...) Hala ere, prozedura horietan guztietan aurreikusi da ezen, irakasleen kidegoetan sartuta ere, langile horien gizarte aurreikuspen araubideak ordura arte zuten bera izaten jarraitzea.

Horrenbestez, langile horiek Gizarte Segurantzari buruzko araudian ezarritako erretiro-araubidearen menpe daude, eta erretiroa hartu ahal izateko baldintzak dira 65 urteko adina eta gutxienez 15 urteko kotizazio-aldia beteta izatea (horietatik bi erretirorako eskubidea sortzen den unearen aurreaurreko 15 urteetan), Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretu 160. artikulua araberan (aurrerantzean, GSTB).

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako aldi baterako araubidea.

Estatuko klase pasiboen erretiro-araubidearen menpeko irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat, berriz, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatian borondatezko erretiro aurreratua hartzeko araubide onuragarriagoa ezartzen zen; izan ere, Estatu-ko Administrazioari emandako zerbitzu aitortuen baldintza ez zen 30 urtekoa, 15ekoa baizik, betiere ikastetxeetako plantilletako lanpostutan etengabeko jardunean arituak baziren erretiroa eskatu aurreko 15 urteetan.

Xedapen iragankor horren 5. idatz-zatian aurreikusten zen Gizarte Segurantzako araubidera edo klase pasiboez bestelako aurreikuspen araubideetara bildutako irakasleen kidegoetako karre-rako funtzionarioek, betiere xedapenaren 1. idatz-zatiko baldintzak betez gero, aukera izanen zutela borondatezko erretiroa eskatzeko unean Estatu-ko klase pasiboen araubideari atxikitzeko, xedapen iragankor horretan jasotako onuratarako eskubidea izatearen ondorioetarako.

Araubide iragankor hori, bere aurreikuspen guztiekin, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa bera ezartzeko prozesua amaitu zen egun berean

amaitu zen (2011ko abuztuaren 31n), halaxe ezarri baitzuen 1. idatz-zatiak.

Egun horretatik aurrera, horrenbestez, Estatu-ko klase pasiboen araubideko funtzionarioentzat, ezinbesteko edo borondatezko erretiroa hartzeko araubidea EKPLTBn ezarritako araubide arrunta da, eta, borondatezko erretiroa hartu ahal izateko, 60 urte beteta izan behar dituzte eta Estatuari emandako zerbitzu aitortuek 30 urtekoak izan behar dute.

Gizarte Segurantzaren afiliaturiko funtzionarioei, berriz, GSTBn ezarritako araubidea aplikatzen zaie, eta, hala, 65 urte eta 15 urteko kotizazio-aldia beteta izan behar dituzte, lehen azaldutako moduan, eta, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorraren indarraldia amaitu ondoren, ez dute aukerarik Estatu-ko klase pasiboen araubidera aldatzeko borondatezko erretiroa eskatzeko unean, aipatu xedapenaren 5. idatz-zatian ezartzen zen moduan.

Kontua da irakasleen kidegoetako funtzionarioak, betiere erretiroaren araubideari dagokionez, bi egoera desberdinetan daudela, bakoitza gizarte aurreikuspeneko zer araubideri atxikita dagoen.

Hala, klase pasiboetako irakasleek borondatezko erretiroa 60 urterekin har dezaketen bitartean (betiere, EKPLTBn ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte), Gizarte Segurantzaren afiliaturiko funtzionarioek ez dute borondatezko erretiroa hartzeko aukera hori, eta 65 urte beteta izan behar dituzte erretiroa hartu ahal izateko, edozein dela ere kotizatutako edo Administrazioari emandako zerbitzu aitortuen urte kopurua.

Araubide desberdintasun horren ondorioz sortzen den egoera berdintasun printzipioaren aurkakoa da; izan ere, bi talde horiek irakasle-kidego berberei atxikita daude, eta, horrenbestez, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituzte, eta, egiazki, halaxe dituzte, erretiroari dagokionez izan ezik, eta horrek justifikaziorik ez duten bereizkeria eta bidegabekeriak sortzen ditu haien artean.

Ezin da ahaztu hasiera batean LOGSEk sortutako egoera hori Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak zuzendu zuela bigarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatian, gorago azaldu dugun moduan. Hala ere, orain, aldi iragankor hori amaitu denean, berriro itzuli gara bereizkeriazkoa iruditzen zaigun hasierako egoerara, eta hala ulertuko zuen Estatu-ko legegileak ere; izan ere, 2006an, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa onetsi zutenean, araudia aldatu zuen bi egoera horiek parekatzeko. Eta parekatze hori aldi baterakoa edo iragankorra izateak ez du zentzurik, aldi baterakotasun hori egoera pertsonal batean oina-



rrituta bailegoke, zeina baita adina; hori dela eta, horren eraginez sortzen den tratu desberdintasuna berdintasun printzipioaren aurkakoa da.

Bai Gizarte Segurantzako bai Estatuko klase pasiboetako erretiroaren araubidea Estatuaren eskumen eskusiboa da eta Nafarroak ez du hura aldatzeko ahalmenik; horrenbestez, ez dugu aukerarik zuzenean ezer egiteko.

Beste kontu bat da Nafarroatik Estatuko Administrazioari eskatu ahal izatea beharrezkoak diren jarduketak edo lege aldaketak egin ditzan bi talde horiek parekatzeko erretiroaren araubideari dagokionez.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, nazioko gobernuak beharrezkoak

diren lege-aldaketak artikulatze aldera prozedura aparteko bat ezartzeko lehenbailehen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile funtzionarizatuak, beren borondatez eta behin bakarrik, atxiki ahal izateko Estatuko klase pasiboen araubideari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du aparteko prozedura bat ezar dezan, Nafarroako Gobernuak hezkuntza arloko eskumenak bere gain hartu zituenean administrazio publiko desberdinetatik Nafarroako Gobernura transferitutako hezkuntza arloko funtzionario guztiek aukera izate aldera Estatuko klase pasiboen araubideari atxiki ahal izateko, beren borondatez eta behin bakarrik.

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Foru parlamentariak: Miren Aranoa Astigarraga, Juan Carlos Longás García eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da ez diezaien eraso egin emakumeen oinarrizko eskubideei eta ez dezan era murriztailean alda egungo Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu premiatzen baita ez diezaien eraso egin emakumeen oinarrizko eskubideei eta ez dezan era murriztailean alda egungo Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Emakumeen erabakitzeko eskubidea mugimendu feministaren borroka historikoaren funtsezko parte bat da. Borroka horrek ibilbide luzea izan du gure herrialdean. 1985ean despenalizazio partzial bat egin zen eta beste 25 urte igaro behar izan ziren (itxaron behar izan genuen 2010era arte), haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko legearen erreforma aurreratuxeago bat izateko, nahiz eta oraindik ere muga asko izan.

Orain, PP, Justiziako ministroaren bitartez, eztabaida faltsu eta engainagarri bat pizteko ahallegina egiten ari da, baina ezin dugu horretan sartu. Emakumeek beren amatasunaren gainean erabakitzeko duten eskubidea ezin da kokatu emakumeen erabaki askearekin zerikusirik ez duen eztabaida batean.

Emakumeek beren amatasunaren gainean erabakitzeke duten eskubidea, hau da, ama izan nahi duten erabakitzekeoa, oinarrizko eskubide bat da eta, horrenbestez, ezin da izan erlijio- eta gizarte-estamentu atzerakoienekiko trukerako gaia.

Emakumeek ez dute izaki heldugabe eta babesgabetzat hartzen dituzten lege protekzionisten beharrik. Emakumeak eskubide osoak dituzte eta, horrenbestez, gaitasuna dute beren erabakiak modu beregain eta burujabe hartzeko. Ezin dugu utzi PPK berriz ere ama, emazte eta zaintzaille eginkizunean jar ditzan.

Haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eta emakumeen erabaki askerako eskubidea defendatzen dugu: interferentziarik gabe, baldintzarik gabe, gainbegiratzetik edo zigorrik gabe.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ez diezaien eraso egin emakumeen oinarrizko eskubideei eta, beraz, ez dezan era murriztailean alda egungo Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du bere gain har ditzan emakume elkartearen aldarrikapen historikoak eta zabal ditzan indarrean dagoen testuan aitorturiko eskubideak, zentzu honetan aitortuak izan daitezzen:

- Borondatezko abortuaren erabateko despenalizazioa, egun Zigor Kodean duen penalizazioa kenduta.

- Emakumeek, gazteak barne, beren amatasunari eta bizitzari buruzko erabakiak hartzeko duten gaitasun erabatekoa ziurtatzea.

- Administrazio-egoera irregularrean dauden emakume etorkinei osasun arloko prestazio osoa ziurtatzea, bai eta haurdunaldia nahita eteteko ere.

- Sexu- eta ugalketa-eskubideak jasotzea medikuntzako, erizaintzako eta arlo soziosanitarioko bestelako ikasketetan eta prestakuntza-ekin-tzak garatzea, genero ikuspegitik haurdunaldiaren borondatezko etendurak, bai kirurgikoak bai farmakologikoak, egiteko gaitasuna ematekoak, profesionalek halakoak egiteko behar duten prestakuntza integrala ziurtatze aldera.

- Protokolo komun bat prestatzea Osasun Sistema Nazional osorako, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren prestazioa egiazki ziurtatuko duena osasun sare publikoan, lurralde-ekitate, prestazioa eskuratzeko berdintasuna eta gertutasuna zainduta lurralde guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan, berezkoak dituen eskumenen esparruan, haurdunaldiaren borondatezko etendura Nafarroako osasun sare publiko osoan egin ahal izatea ziurtatze aldera.

Iruñean, 2013ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezko aldaketak egin ditzan indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua eta exiji diezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita beharrezko aldaketak egin ditzan indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua eta exiji diezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

UPN parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Sakanako Mankomunitatean integraturiko zenbait udalerritako herritarren alde egiten da, "atez ate" izenez ezagutzen den hondakin bilketa-sistemaren inposizioa dela-eta, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio sistema hori geldiarazi eta 2010-2020 urteetarako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala alda dezan.

Mozioa, zeinaren bidez Sakanako Mankomunitatean integraturiko zenbait udalerritako herritarren alde egiten baita, "atez ate" izenez ezagutzen den hondakin bilketa-sistemaren inposizioa dela-eta, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzaio sistema hori geldiarazi eta 2010-2020 urteetarako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala alda dezan.

Sakanako Mankomunitatean integraturiko zenbait udalerritan bizi diren milaka nafarrek beren

burua kaltetuta ikusten dute eta oso kezkatuta daude aipatu mankomunitateak "atez ate" izenez ezagutzen den hondakin bilketa-sistema inposatu duela-eta.

Bilketa-sistema horrek sakonki aldatzen ditu ukitutako herritarren eguneroko ohiturak eta, gainera, derrigorrez inposatu nahi du Bilduk, mankomunitatearen lehendakaritza duen talde politikoak. Horrek kezka eta arbuio handia eragin du herritarren artean, eta, ondorioz, gai horri buruzko mozioak eztabaidatu dira zenbait udaletako osoko bilkuretan; beste batzuetan, berriz, aurkako jarrera erabatekoa izan da, hala nola Altsasun, Irurtzunen eta Ziordian, non lortu baita sistema horren ezarpena geroratzea.

Zaharkitua, narrasa, osasunarentzako kaltegarria eta objektiboki zikina den hondakin bilketa-sistema horrek herritarrengan sortu duen kezka erabat gutxietsi du Sakanako Mankomunitateak eta zenbait udalek, zeinek erabaki baitute sistemaren ezarpena inposatzea, herritarrei arrazoiak entzun gabe. Administrazio Publikoa ezin da saiatu, inolaz ere, XXI. mendeko herritarrek lorturiko askatasun eta informazio mailak mugatzen, ezta ingurumenaren balizko hobekuntza bat aitzakiatzat hartuta ere. Herritarrei ezin zaie inposatu, inolaz ere, asteko egun bakoitzean bilduko zaien hondakin mota, eta, are gutxiago, hondakin horien ikuskapen xehakaturia, horrek dakarren intimitate galerarekin.

Nabarmendu behar da Bilduk sistema hori inposatu nahi izan duen Gipuzkoako zenbait herritan, hala nola Legorretan, Bergaran, Oñatin, Usurbilen, Hernanin, Antzuolan, Oiartzunen, Zarautzen, Zumaian edo Legazpin, herritarren plataformak sortu direla, sistemaren aurkako 73.000 sinaduratik gora biltzea lortu dutenak, eta erreferendum ez-lotesleak deitu dira, Sakanako Mankomunitatea eta bertan integraturiko zenbait udalerririk gobernatzeko dituen talde politiko bera duela bi urte baino gehiagoz geroztik inposatzen ari den sistema horren beraren inposizio totalitarioa dela-eta. Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onetsi du berriki, zeinaren bidez premiatzen baita hondakin bilketa-sistema hori geldiaraztera.

Horregatik, Nafarroako Foru Parlamentuak ezin du ezaxola egon milaka nafarri ere eragiten dien kezka honen aurrean; izan ere, Sakanako Mankomunitateak eta bertan sarturiko zenbait udalek beren herritarrak gutxietsi eta mespretxatu egin dituzte eta objektiboki egungoa baino garestiagoa, osasunarentzat kaltegarriagoa eta deserosoagoa den hondakinen bilketa-sistema bat ezarri dute. Gainera, nahi ez diren beste ondorio batzuen artean, sistema horrek beste mankomunitateetarako “zabor turismoa” deiturikoa eragiten du, eta horrek kalte ekonomiko nabaria eragiten die, zaborraren bilketaren eta tratamenduaren kostua dela-eta. Hori guztia kutsu ideologiko nabarmena ezkutatzaren duten ustezko kontzientziario kanpaina batzuetan bilduta, zeinen bidez hausten baitira mankomunitateen eta Nafarroako Gobernuaren beraren ahalegin koordinatuaren ondorioz herritarrek hartutako ohiturak; izan ere, lortu baita Foru Komunitateak kalifikazio nazional onena izatea ontzien eta paper-kartoiaren bilketari dagokienez, Ecoembes enpresak egiaztatu duenez.

Alternatiba gisa, materia organikoaren gaikako bilketarako bosgarren edukiontzia ezarpena oso bateragarria da herritarrek egun dituzten ohi-

turekin, eta Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu zabal baten ondotik onetsitako 2010-2020 urteetarako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua ezarritako helburuak betetzen ditu. Hori dela eta, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua aldatzea proposatzen dugu, gaikako bilketa-sistema hori izan dadin gai organikoa biltzeko Nafarroan ezarriko den sistema bakarra.

Horregatik, eta egoeraren larritasuna ikusirik, UPN parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, ingurumen arloko plangintzarako dituen eskumenen esparruan, beharrezkoak diren aldaketak egin ditzan indarrean dagoen 2010-2020 urteetarako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua, bosgarren edukiontzia izate aldera Nafarroan aplikatzekoa den gai organikoa biltzeko sistema bakarra, eta, bitartean, exiji diezaiei Sakanako Mankomunitateari eta atez ateko sistema inposatu nahi duten bertako udalei berehala geldiaraz dezatela sistema horren ezarpena.

Iruñean, 2013ko ekainaren 4an

Eleduna: Carlos García Adanero

## **Mozioa. Horren bidez, “Red Eléctrica Española” enpresa premiatzen da justifika dezan Orkoien eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzeari.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez “Red Eléctrica Española” enpresa premiatzen baita justifika dezan Orkoien eta Ezkabarte artean 220 kW-ko linea bat jartzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Duela gutxi agerraldia egin dute Parlamentu honetan Orkoien eta Ezkabarte arteko goi tentsio-ko linearen trazadurak ukitutako zenbait toki entitatetako ordezkariak. Agerraldia egin dute, halaber, zenbait talde ekologistak, kezkatuta, proiektu hori aurrera eramanez gero Iruñerrian izanen lukeen ingurumen-eragina dela-eta.

Une honetan jendaurrean dagoen proiektuan proposatzen den trazadura Iruñerriko iparraldetik igarotzen da eta, aireko dorreen eraikuntzaren bidez, eragin handia izanen luke zeharkatzen dituen ibar eta udallerrietan.

Halako garrantzia duen proiektu bat gauzaten hasi aurretik, beharrezkoa da haren beharra egiaztatzea eta, halaber, erakustea bete nahi dituen zerbitzuak ezin daitezkeela beste alternatibaren baten bidez bete.

Era berean, eta aipatu azpiegitura ezinbestekoa bada, hori gauzatu beharko litzateke linea lur azpitik igarota eta ez airetik, horrek eragin larria baitu ingurumenean. Are gehiago, kontuan hartzen

badugu aurkeztutako trazadura-proiektuak Iruñerriaren zati handi bat zeharkatzen duela eta, gauzatuz gero, atzera bota ezineko egintza izanen dela urte askotarako.

Hori dela eta, saihestezina balitz azpiegitura hori egitea, etorkizunerako aukera baten aldeko apustua egin behar da, egungo eragin larriak saihestuko dituen eta etorkizunean zalantzarik gabe ekarriko lukeen edozein zailtasun konponduko lukeena.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak “Red Eléctrica Española” enpresa premiatzen du, Orkoien eta Ezkabarte artean aurreikusitako 220 kW-ko linea bat jartzeko behin betiko erabakia hartu aurretik, behar bezala justifika dezan linea horren beharra.

2. Nafarroako Parlamentuak “Red Eléctrica Española” enpresa eta Nafarroako Gobernuak premiatzen ditu, Orkoien eta Ezkabarte artean aurreikusitako 220 kW-ko linea eraikitzea ezinbestekoa joz gero, lur azpitik eraiki dezaten, eta ez airetik, egungo proiektuan aurreikusten den moduan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Foru parlamentariak: Carmen Ochoa Canela, Víctor Rubio Martínez, Txentxo Jiménez Hervás eta Marisa de Simón Caballero

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.**

**BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsiriko hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2013ko apirilaren 17ko Erabakiaren bidez, zenbait toki entitaterekin –zehazki 45 toki entitaterekin– hitzarmenak egiteko gastua onetsi zuen, 2012/2013 ikasturtean haien titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur eskolen kudeaketa finantzatze aldera.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak, hitzarmen horien bidez, udalen titulartasuneko 0-3 urteko haurrentzako zentroak finantzatzen laguntzen duela, udalekin eta familiekin berekin batera.

Erabaki horretatik kanpo geratzen dira 17 ikastetxe, jada aurkeztu dutenak eskatutako dokumentazioa, eta beste 29, zeinen espedienteak oraindik amaitu gabe baitaude.

Aipatzekoa da finantzaketa-hitzarmenetik kanpo geratutako udaletako asko direla Nafarroako Gobernuak exijituriko egokitze-lanak nahi baino beranduago egin dituztenak, arrazoi soil batengatik; hain zuzen, ikasturtea abian zelako eta ezinezkoa zelako egokitzapen horiek egitea ikasleak eta irakasleak ikastetxean zirela.

Beste udal batzuei, besterik gabe, ezinezkoa zaie Gobernuaren eskakizunak finantzatzea edota

zailtasun handiak dituzte horiek finantzatzeko; izan ere, eskakizun horien osagarri ez da diru-laguntza deialdirik egin, eta horrek, de facto, lankidetzaz hitzarmenetatik kanpo gera daitezela dakar.

Nafarroako Gobernuak ezartzen ditu ikastetxe-ek bete beharreko baldintzak, baina ez du diru-laguntzak emateko inolako deialdirik onesten inbertsio horiei aurre egin ahal izateko. Jakina denez, udalek ez dute ahalmenik lan horiei aurre egiteko eta, ikastetxeak egokitzeko lanak egin nahi izanez gero, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak emateko deialdi bat egitea.

Hori dela-eta, eta egoera ikusirik, parlamentutalde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kontusail bat gaitu dezan Hezkuntza Departamentuak onetsirik hitzarmenetatik kanpo geratu diren udal titulartasuneko eskolen funtzionamendurako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du deialdi bat onetsi dezan ikastetxeak dekretuan ezarritako baldintzetara egokitze-lanak egiteko diru-laguntzak emateko, toki entitateei finantzaketa ziurtatze aldera inbertsioak egiteko.

Iruñean, 2013ko ekainaren 6an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramirez Erro

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitie “Huntsman” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan.**

**ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die “Huntsman” enpresako langileei, enplegua mantentze aldera aurrera daramaten borrokan.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak lehenbailehen esku hartzea eta enpresarekiko bitarte-

karitza-lana egitea, lanpostuak mantentzearen helburua lortze aldera.

3.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak bere presio-ahalmen osoa erabiltzea “Huntsman” enpresaren aurrean, jarduera eta enplegua mantentze aldera.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie “Ganasa”ko langileei.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die “Ganasa”ko langileei, igarotzen ari diren une zailetan.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du hausnarketa sakona egiteko bigarren enpresa-berregituraketa horren inguruan, eta hausnarketa horretan kontuan hartuko dira, berre-

gituratzearen osagai nagusi gisa, enplegu suntsiketa ez diren beste elementu batzuk.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua animatzen du enpresa publikoetako kaleratzeak geldiaraz eta berrazter ditzan, Enpresa Korporazio Publikoaren estrategia argitu arte, arazoizkotzat jo daitezkeen denbora-muga baten barruan”.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie uholdeek kaltetutako pertsona guztiei eta administrazio publikoak premiatzen baititu presako neurriak har ditzaten.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die uholdeek kaltetutako pertsona guztiei, eta administrazio publikoak premiatzen ditu presako neurri eraginkor eta azkarrak har ditzan, kaltetutako herritarrak artatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak exijitzen du administrazio eskudunen azalpen bat, ur-emarien eta larrialdien kudeaketaren arloan eginiko jarduketan inguruan, eta, kasua bada, egon daitezkeen erantzukizunak argitzea”.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitie uholdeek kaltetutako pertsona, familia eta entitateei.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere babes eta elkartasun osoa adierazten die iragan asteburuko uholdeek kaltetutako pertsona, familia eta entitateei.

2. Eskatzen du azkar ebalua eta konpon daitezela ondasun pribatu nahiz publikoetan izandako kalteak.

3. Eskatzen du azter daitezela uholde-alerta aurrerapen handiagoz ez aktibatu izanaren arrazoiak.

4. Eskatzen du prebentzio-sistemak hobetzen has daitezela etorkizunean gerta daitezkeen uholdeei begira.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko.*****TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez duen ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

1. Zer dela-eta Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak ez du aldi batez ekonomialari nahiko izan Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko?

2. Zenbat hilabetez egon da Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia Banakakoaren Arreta Programako espedienteetako ahalmen ekonomikoko balorazioak egiteko ekonomialari nahikorik gabe?

3. Horrek atzerapenik eragin al du mendekotasunen balorazioan eta laguntzen ordainketan? Hala bada, zenbatekoa izan da atzerapena? Balorazioarako ezarritako sei hilabeteko epe horretatik aurrerako laguntzen eta/edo prestazioen ordainketa erreklamatzeko?

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2012ko abenduaren 31koa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero presatutako duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2012ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

**1.** 2012ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>				
DÍEZ LAGO, PABLO	A	7	Legelari nagusia	Jardunean
<b>Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritza</b>				
LASECA ESCUER, JOSÉ RAMÓN	C	7	Administrari burua	Jardunean
MITXELENA ENBIL, IZASKUN AMAIA	C	5	Administraria	Jardunean
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>				
ESPARZA OROZ, MIGUEL	A	7	Legelari nagusiaren ondokoa	Jardunean
BERMEJO GARDE, MOISÉS	A	7	Legelaria	Zerbitzu bereziak
DOMENECH ALEGRE, SILVIA	A	3	Legelaria	Jardunean
PULIDO QUECEDO, MANUEL	A	7	Legelaria	Jardunean
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>				
LANPOSTU HUTSA	B		Administrari buru teknikaria	
LANPOSTU HUTSA (desagertzekotan)	B		Teknikari diplomatua	
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	6	Informatikako goi mailako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	4	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
MARZAL PARRA, M. <sup>a</sup> ASUNCIÓN	B	5	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	C		Mantenimenduko ofizial teknikaria	
ALDATZ PAYAN, GORKA	C	4	Administraria*	Jardunean
ARDAIZ EGÜÉS, ÁNGEL	C	7	Administraria	Zerbitzu bereziak
BEAR SANZ, CARLOS	C	6	Administraria	Jardunean
ECHVERRÍA UHALTE, CELINA	C	7	Administraria	Jardunean
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	6	Administraria	Zerbitzu bereziak
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	6	Gelazain nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M. <sup>a</sup> ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M. <sup>a</sup> ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Jardunean
FADRIQUE GARDE, ISABEL	D	7	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	5	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. <sup>a</sup> JESÚS	D	5	Gelazaina	Jardunean
MONEO MARTÍNEZ, M. <sup>a</sup> INÉS	D	5	Gelazaina	Jardunean
TORRES IBARROLA, JESÚS M. <sup>a</sup>	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
URMENETA MARÍN, OLGA	D	6	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
VENTURA ARBILLA, ANA ISABEL	D	6	Gelazaina	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>				
GIL MARTÍNEZ, CARLOS JAVIER	A	7	Prentsako burua	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	A		Komunikazio teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	3	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	4	Itzultzailea	Jardunean
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	3	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	4	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	4	Itzultzailea	Jardunean
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	4	Protokoloko teknikaria **	Jardunean

<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>Maila</b>	<b>Gradua</b>	<b>Lanpostua</b>	<b>Administrazio egoera</b>
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, BELÉN	C	6	Administraria	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria*	
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	5	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPIÓN, ANA ISABEL	C	7	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	6	Transkriptorea	Jardunean
SÁENZ GARCÍA, M. <sup>a</sup> CARMEN	C	6	Transkriptorea	Jardunean
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	5	Transkriptorea *	Jardunean
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	3	Transkriptorea	Jardunean
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, LUIS JAVIER	A	7	Artxibo eta Liburutegiko burua	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	4	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
ALEGRÍA GOÑI, M. <sup>a</sup> CARMEN	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	7	Administraria	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	6	Administraria*	Jardunean
<b>KONTU-HARTZAILAZIA ETA EKONOMIA GAJETARAKO ZERBITZUA</b>				
ZULET RECALDE, FERNANDO	B	7	Kontu-hartzailaziko burua	Jardunean
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M <sup>a</sup> VICENTA	C	7	Administraria	Jardunean
PÉREZ DE RADA ARÍSTEGUI, M. <sup>a</sup> EUNATE	C	7	Administraria	Jardunean
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>				
BALDUZ GIL, JORGE	B	2	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LAINÉZ GIL, MAR	C	6	Administraria	Jardunean
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	

(\*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(\*\*) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua